

Etxebizitza esleitzeko kupoak

Etxebizitzak esleitzeko, honako kupo hauek ezarri dira:

1) Mugikortasun urria

- Bizikidetza unitateentzat erreserbatua, unitateko gutxienez pertsona batek egoera hori babes ofizialeko etxebizitzaren arloan indarrean dagoen Autonomia Erkidegoko araudian ezarritako ezaugarrien arabera egiaztatzen duenean: mugikortasun baremoan **7 puntu edo gehiago edota A eta B letrak** dituen mugikortasun urria.
- Dokumentazioa:** Foru Aldundiak emandako minusbaliotasun ziurtagiria.

2) Genero indarkeria

- Egoera hori indarrean dagoen araudian ezarri bezala egiaztatzen dutenentzat erreserbatua. Genero indarkeria **azken bi urteetan**
- Dokumentazioa:** Genero indarkeriako gertakariak egiaztatzen dituen epai judiziala, babes agindua edo gizarte zerbitzuen txostena, betiere dokumentu horiek bi urte baino gutxiagokoak badira.

3) Adimen desgaitasuna edo gaixotasun mentala

- Bizikidetza unitateentzat erreserbatua, kontratuaren titular gisa agertzen den pertsonak adimen desgaitasuna, garapenaren desgaitasuna edo gaixotasun mentala duenean eta **minusbaliotasun ehunekoa % 33 edo handiagoa denean**.
- Dokumentazioa:** desgaitasunaren edo gaixotasunaren diagnostikoa eta desgaitasun ehunekoa jasoko dituen minusbaliotasun ziurtagiria, Foru Aldundiak emana.

4) 65 urtetik gorako pertsonak

- Bizikidetza unitateentzat erreserbatua, kontratuaren titular gisa agertzen den pertsonak 65 urte baino gehiago dituenen.

5) 35 urtetik beherako pertsonak

- Familia kargarik ez duten 35 urtetik beherakoentzat.
- Kupo hori lortu nahi duten pertsonak aldez aurretik adierazi beharko dute eskabidean etxebizitza babestu bat edo zuzkidura bizitoki bat eskuratu nahi duten. Zuzkidura bizitoki bat eskuratu nahi dutela adierazten ez badute, etxebizitza babestu bat eskuratu nahi dutela ulertuko da.

6) Familia ugariak

- Egiaztasun ofizialaren bidez egoera hori justifikatzen duten bizikidetza unitateentzat erreserbatua.
- Dokumentazioa:** Familia ugariaren titulua, Foru Aldundiak emana.

7) Guraso bakarreko familiak

- Bere kargura seme edo alaba bat edo batzuk dituen eta eskaera aurkezteko unean ezkontza harremanik edo antzekorik ez duen amak edo aitak osatutako unitateentzat erreserbatua.
Egoera erabaki pertsonal baten edo gerora gertatutako beste edozein arrazoren (banantzea, dibortzioa, alarguntasuna edo bizikidetzaren amaiera) ondoriozkoa izan daiteke.
- Banantzearen edo dibortzioaren kasuan, honako hauek sartu ahal izango dira kupo honetan:

- Bi gurasoak, zaintza partekatuaren kasuan.
- Zaintza duen gurasoa
- Zaintza ez duen gurasoa, betiere hitzarmen erregulatzailean ezarritako bisita erregimenean seme-alabek guraso horrekin urtean 75 gau baino gehiagotan lo egin behar dutela finkatzen denean.

Dokumentazioa: epai irmoa eta/edo onartutako hitzarmen erregulatzailea.

- Ezkontzaz kanpoko harremana hautsiz gero, honako hauek sartu ahal izango dira kupo honetan:
 - Bi gurasoak, zaintza partekatuaren kasuan
 - Zaintza duen gurasoa
 - Zaintza ez duen gurasoa, betiere hitzarmen erregulatzailean ezarritako bisita erregimenean seme-alabek guraso horrekin urtean 75 gau baino gehiagotan lo egin behar dutela finkatzen denean.

Dokumentazioa: gurasoen eta seme-alaben arteko harremanen hitzarmena

- Alarguntasunaren edo erabaki pertsonalaren kasuan.

Dokumentazioa: Familia liburua.

8) Etxebizitza partekatua

- Egonaldien araberrako alokairua, ahaidetasun loturarik izan gabe Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroan eskatzaile indibidual gisa inskribatuta dauden eta esleipen modu horretan parte hartzea berariaz onartzen duten bi edo hiru pertsonako taldeentzat erreserbatua.
- Horretarako, honako hauek izan daitezke talde horiek proposatzen dituztenak:
 - Eskatzaileak berak, berariazko eskaera baten bidez.
 - Donostiako Etxegintzak. Hainbat irizpideren (hala nola generoaren eta adinaren) arabera proposatu ahal izango ditu etxebizitzak partekatzeko taldeak.

9) Orokorra

- Beste kupoetan adierazitako zirkunstantzietako ezein egiaztatzen ez duten pertsonentzat edo bizikidetza unitateentzat erreserbatua.
- Eskaerak onartzeko azken eguna baino lehen 1., 2., 3., 5., 6., 7. eta 10. kupoetan adierazitako egoerak dokumentuen bidez egiaztatzen dituzten pertsonak eta bizikidetza unitateak baino ez dira kupo horietan sartuko. Egoera horiek dokumentuen bidez justifikatzen ez dituzten pertsonak zuzenean kupo orokorrean sartuko dira.

10) 70 urtetik gorakoak, Donostian etxebizitza baten titullarrak.

- Gehienez bi pertsonaz osatutako bizikidetza-unitateentzat erreserbatua, gutxienez pertsona batek 70 urte bete baditu.
- Donostiako etxebizitza baten titularra izatea, jabetza-erregimenean, azalera-jabetzan edo biziarteko gozamenean edo antzekoan, eta igogailurik edo irisgarritasun-baldintzarik ez izatea kokatuta dagoen hiri-ingurunean.
- Etxebizitzan gutxienez bost urtez ohiko bizileku iraunkorra izatea.
- Etxebizitza Donostiako Etxegintzari lagatzea lortu beharko dute, erakunde horretako etxebizitza-eskatzaileei esleitzeko.

KUPOEN ESKABIDEAK ESLEITZEKO LEHENTASUN HURRENKERA

Pertsona edo bizikidetz-unitate batek prozeduran parte hartzeko baldintzak betetzen baditu kupo batean baino gehiagotan, honako lehentasun hau zehaztuko da:

LEHENTASUN ORDENA	KUPO ZK.	KUPOA
1	10	70 urtetik gorakoak, etxebizitzaren titularrak
2	1	Mugikortasun urria
3	2	Genero-indarkeria
4	3	Adimen-desgaitasuna
5	7	Guraso bakarreko familiak
6	6	Familia ugariak
7	4	65 urtetik gorakoak
8	5	35 urtetik beherakoak, ardurapeko seme-alabarik gabe